

KOSTUEN EGITURA

Zein dira SARARGI proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

SARARGI-k proiektua aurrera eramateko, honako elementu hauetan oinarrituko du bere kostu egitura:

1. Kostu finkoak

Kostu hauek aldi berean ordaintzen dira eta ez dira aldatzen proiektu edo jardueren arabera:

- **Internet eta argia:** Konexio egonkorra eta etxean (bulegoan) izan ahal ditugun oinarritzko gastuak.
- **Software eta lizentziak:** Zerbitzu espezifikoetarako beharrezko programak (adibidez, diseinu edo komunikazio-tresnak).

2. Kostu aldagarriak

Hauek jarduera edo proiektuaren arabera aldatzen diren kostuak dira:

- **S.L. enpresa sortzeko kostuak:** Hasierako gastu bakarra, beharrezko izapideak eta erregistroak egiteko.
- **Kanpoko profesionalen ordainsariak:**
 - Informatikoak (webgunea garatzeko).
 - Elektrizistak/ arkitektoak...(proposatutako egokitzapenak instalatzeko).
 - Lan aholkularitza baten zerbitzuen kontratazioa (beharren arabera kontabilitatea eta bestelako kontu legalak kudeatzeko).
- **Garraioa:**
 - **Kotxea edo autobusa:** Bezeroen egoitzetara iristeko edo jarduerak egiteko mugimenduak sortutako gastuak (garraio publikoaren txartela, gasolina...)
- **Materialak eta ekipamendu osagarriak:** Proiektu bakoitzerako beharrezko material fisikoak.

3. Eskala-ekonomiak

- SARARGIren kasuan, kontratu gehiago lortzeak, hala nola, lizitazio publikoen bidez, zerbitzu bakoitzeko kostuak murriztea ahalbidetuko du, baliabideak modu eraginkorragoan erabiliko direlako. Adibidez, formakuntza programa gehiago antolatuz, tailer bakoitzeko gastua jaisten joango da.

4. Hedapen-ekonomiak

- **Definizioa:** SARARGIk komunikazio inklusiboa ardatz duten hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: sentsibilizazio-tailerrak, teknologia egokitutako instalazioak eta dokumentuen egokitzapenak. Zerbitzu horiek elkarrekin eskainiz, baliabideen erabilera partekatuak kostuak murriztea ahalbidetuko du. Adibidez, teknologia instalatzeko proiektu bat dokumentu egokitzapen zerbitzuarekin uztartuz, bezero bati eskaintza oso bat egiteko aukera dago.

5. Negozio-ereduaren arabera kostuen eta prezioen kudeaketa

- **Prezio baxuak dituzten negozio-ereduak:**
 - SARARGIk prezio lehiakorrak eskaini ahal izango ditu hasierako proiektuetan, bezeroen artean sarrera lortzeko eta marka ezagutzera emateko.
- **Kalitate maila altuak dituzten negozio-ereduak:**
 - Zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituen heinean, SARARGIk kalitate handiko zerbitzuak prezio justu eta egokietan kokatuko ditu, bezeroen gogobetetasuna eta fideltasuna ziurtatuz.

SARARGIren kostu-egiturak egonkortasuna eta malgutasuna uztartzen ditu. Hasierako kostuak murriztzak dira, baina zerbitzuen eskaria handitzen den heinean, eskala- eta hedapen-ekonomien abantailak aprobetxatzeko aukera emango dute. Kalitatezko zerbitzuak eskainiz, bezeroengan konfiantza eta balioa sortuko du, eta horrek epe luzerako arrakasta bermatuko du.